

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felix Salterain Murua

*Atxondo,
Bizkaia
(1924-2014)*

Aurkibidea



Biografia



Atxondo udalerriko Axpe Martzaan jaio zen, Asteiza (Astitze) baserrian, artzain familia batean. Aita eta ama ere Axpekoak. Garcia Ariño pilotarien aita izan zen bere maisua. Hamar neba-arreba ziren. Gerra denboran Barrikara joan zen ihesi familiarekin, artalde eta guzti. Hamasei urterekin morroi egon zen Bergarako Osintxu auzoko Eguzkitza baserrian. "Infanteria de Marín" egin zuen soldadutza, Ferrolen. Elorrioko Zenita auzoko Bedoia baserrira ezkondu zen eta bertan bizi izan da geroztik.

Zintak

ATX-005

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Gallastegi, Juanito - Salterain, Juanjo
- **Data:** 2011-05-25
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Irakasle nafarra

- **Erref:** ATX-005/002
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:02:49. **Bukatu:** 00:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Eskolan irakasle nafarra izan zuen, behin-behinean zegoena. Anekdota bat kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Eskolara nora joan zifan?
- Eskolara, ibili nitzan ni Garziariñon aittaaz.
- Pelotarixa. Axpen bertan?
- Bai. Ta hare... zan naparra zerraua. Entzun, e? Ta ebentuala zan ha.

- Napar zerraua, baiña erdeldune.
- Bai, bai, zerrae, erdeldune. Ta harek eskolatik... ez, nik eskolatik eta harek maisutzatik —ebentuala zan—Memeriko puntara, biherrien bixok. Ta bagaz bezkeittan han ta: “Ah! niri ez dakit zer pasau, niri ez da gustau biherra”.
- Ze eitten zaban, sasi-euskeria?
- E?
- Sasi euskeria eitten zaban?
- Bai, seguru! Ez ekixen hak bape ta! Sasi... Ta Axpen neskato-mutikotan holantxik. Ta beste “Akerra” esaten otsena, Atanaxio, etorri zan pitxer ederraz gero, e? ederra pitxerra. Gaur be hak pitxerrak... Uretan etorri zan. Ta mutikuek apurtu ein otsen /eitzen/ pitxerroi. Ta maisue... Pitxer zatixek hartu ta maisue ondolik bazoien ta: “Maiso! Estos mutikos no tienen lotsa! Yo venir a la escuela a dar garrotazos!” ta zatixe bota eban. Hori Bittorrek be ondo daki.

2. Arrazolarako trena

- **Erref:** ATX-005/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:04:54. **Bukatu:** 00:06:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Arrazolan bazen eskola. Senideak zituen han. Elorriora baino lehen, Arrazolara joaten zen trenbidea, meatzeak zeuden eta. Trena kea dariola joaten zen. Gaztelerazko esaera bat esaten du.

3. Irakaslearekin Santa Ageda batzen

- **Erref:** ATX-005/005
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:08:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Garcia Ariño pilotariaren aita izan zuen irakasle. Irakurtzen ondo ikasi zuela dio. Gitarra ondo jotzen zuen irakasleak eta Santa Ageda batzen joaten ziren. Anekdotak bat kontatzen du. Santa Eskeko koplak zati bat abesten du.

4. Morroi Osintxura

- **Erref:** ATX-005/007
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

San Blas eguna zen eta elurra ari zuen. Etxetik morroi alde egiteko eguna. Bergarako Osintxu auzora iritsi zenean, aldapa handiak zeudela gogoratzen du. Harrera egin zioten afari onarekin.

5. Haria eta abarka-kordelak egiten

- **Erref:** ATX-005/008
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:13:55. **Bukatu:** 00:17:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Haria egiten zuen txabilan eta abarka kordelak ere egiten zituen. Nola egiten zen kontatzen du. Tabako orria erretzen ere han ikasi zuen. Berarekin batera morroi ibili zenaren anekdota bat kontatzen du. Osintxuko Eguzkitza baserrian egon zen morroi. Inguru hartan baserri guztietan zeuden neskame eta morroiak.

6. Iturbeko lurjabea eta ijitoak

- **Erref:** ATX-005/009
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:17:21. **Bukatu:** 00:18:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Garia eta bereziki artoa ereiten zuten. Iturbeko lurjabe handiak ijitoekin izan zuen anekdota bat kontatzen du.

7. Soldadutzan itsasoan

- **Erref:** ATX-005/010
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:18:46. **Bukatu:** 00:22:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Soldadutzan zebilela, andaluziar batek Bilbon ehun pezeta ostu zizkion. Itsasoan egin zuen soldadutza eta nondik nora ibili zen kontatzen du. Beste euskaldunak ez zitzaion tokatu.

8. Portugaleteko neskaren eta soldaduen arteko pasadizoa

- **Erref:** ATX-005/011
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:22:36. **Bukatu:** 00:23:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Portugaleten soldadutzako kideekin gertatutako anekdota, neska bati piropoa bota eta hark erantzun ziena.

9. Nafarrei buruzko kontakizunak

- **Erref:** ATX-005/014
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:26:24. **Bukatu:** 00:27:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bere aitak kontatzen zuen pasadizoa, Anbotosten lau nafar ikatza egiten aritu zirenekoa. Arnedilloko nafarraren anekdota.

10. Erdaraz ez zekitenei buruzko kontakizunak

- **Erref:** ATX-005/016
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:30:07. **Bukatu:** 00:32:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Erdaraz bat ere ez zekien baten pasartea, Durangora plazara saltzera joan zenekoa. Arabara joaten ziren erdaraz ikastera eta batzuk euskaldunekin elkartu eta bat ere ikasi gabe itzultzen ziren. Anekdota bat kontatzen du.

11. Betaurrekodunaren pasadizoa

- **Erref:** ATX-005/017
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:32:26. **Bukatu:** 00:34:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Betaurrekoak harrokeriagatik erabiltzen zirela esaten zuten lehenagokoek. Anekdotak bat kontatzen du.

12. Mañariako ugazabaren pasadizoa

- **Erref:** ATX-005/018
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:34:07. **Bukatu:** 00:34:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Pasadizoa: Mañarian gereziak batzera bidali zituen ugazabak morroiak baina etenik gabe txistuka aritzera derrigortu zituen, ez zezaten gerezirik jan.

13. Berorika, zuka eta to zeini egiten zion

- **Erref:** ATX-005/021
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:37:31. **Bukatu:** 00:39:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Berorika apaizari eta medikuari egiten zioten. Zuka anai zaharrenari egiten zion eta hika gainontzeko anai-arrebei.</p>

14. Telefonoa, bizikleta eta irratia lehenengoz

- **Erref:** ATX-005/024
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:42:20. **Bukatu:** 00:45:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Axpen lehenengo telefonoa jarri zutenekoa eta lehen bizikleta ekarri zutenekoa. Lehen irratia izan zuenari buruzko pasadizoa.

15. Arantzazuko bideari buruzko bertsoak

- **Erref:** ATX-005/026
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:47:07. **Bukatu:** 00:48:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Arantzazuko bideari buruzko bertsoak abesten ditu, amari ikasiak.

16. Arantzazurako prozesioko pasadizo barregarria

- **Erref:** ATX-005/027
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:48:44. **Bukatu:** 00:49:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Arantzazura errones eta liburua ahaztuta joan zen apaiz baten pasadizoa.

17. Munduaren azkeneko bertsoak

- **Erref:** ATX-005/028
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:49:38. **Bukatu:** 00:52:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Munduaren azkeneko bertsoak kantatzen ditu, amari ikasiak.

18. San Blasetaiko bertso-paperak

- **Erref:** ATX-005/031
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:54:02. **Bukatu:** 00:56:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Manoleteren kantuak saltzen zituzten Abadiñoko San Blasetan. Zapata-saltzailearen kontuak. Lapurretan asko egiten zuten San Blasetan. Bertso-paperak saltzen zituzten.

19. Maiatzeko loreetako abestia

- **Erref:** ATX-005/034

- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:00:14. **Bukatu:** 01:01:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

Laburpena:

Eskolara ahal zenean joaten ziren. Maiatzean loretara joaten ziren eta kantuz aritzen ziren. Abesti bat kantatzen du.

20. Don Luis apaiza

- **Erref:** ATX-005/036
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:02:36. **Bukatu:** 01:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Don Luisi buruzko kontuak kontatzen ditu. Ehiztari ona omen zen.

21. Elorrioko eta Axpeko hizkerak

- **Erref:** ATX-005/037
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:05:00. **Bukatu:** 01:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Elorrioko hizkera desberdina da Axpekoarekiko, doinuan eta berbetan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-07-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com